

Intxaurrondo

Urtzi, auzoko Spielberg gaztea

Urtzi Alfarok "Lagunak" euskarazko film laburra egin zuen iaz, gaztetxoei zuzendutako "Kamera atzean" egitasmoaren harira. Berarekin "Lagunak" film laburraz eta zine zaletasunaz aritu gara.

Aitor Urkizu Azuabarrena
Esan iezazkiguzu film laburaren nondik norakoak.

Etkez eta eskolaz aldatu ostean, ingurune berrira egokitzeko arazoak dituen mutila da protagonista. Gaztetxoa ia ez da etxetik ateratzen; hortaz, ez du lagunik. Dena dela, oso

azkarra da etxeko lanak egiten eta. Hori dela eta, klasekideak laguntza eske joango zaizkio.

13 urte besterik ez dituzu. Laguntza behar izan al zenuen filma egiteko?

Gidoia nik egin nuen, baina irakasle eta ikaskide guztien laguntza izan nuen. Izan ere, film labur bat egiteko, jende asko behar da: zuzendaria laguntzailea, kamerak... Lagunek grabatzen lagundu zidaten eta nik besteek egindakoetan ere eskua bota nuen. Normala denez, hasieran irakasleak gain-gainean genituen, baina poliki-poliki, gero eta askeago aritu ginen lanean.

Zergatik jarri zinen kamera atzean?

Zinema betidanik izan dut gogoko eta txikitatik film mordoa ikusi dut. Duela lau urte



"Kamera atzean" egitasmoan izena eman nuen. Hasieran, taldekide guztion artean gidoi bat prestatu eta grabatu egiten genuen. Orain, ordea, bakoitzak berea egiten du. Aurtten, adibidez, ni Gillen Mungia ikaskideari laguntzen ari naitzaio.

Zein zine mota gustatzen zaizu gehien?

Zinegileen artean, Steven Spielberg. Eta filmeei dagokionez, "Star Wars"-en atalak nabarmenduko nituzke.

Zer duzu nahiago, kamera atzean ala aurrean aritzea?

Dudarik gabe, kamera atze-

an erosoago sentitzen naiz. Aktore lanetan, aldiz, oso urduri jartzen naiz.

Lehiaketaren batean parte hartu al duzu?

"Lagunak" film laburra Lekeitioko Bideo Zinemaldian aurkeztu nuen duela hilabete gutxi. Ilusio handia egin zidan nire lana bertan aurkeztu eta jendeak ikusi izanak. Gainera, parte hartu izanagatik, diploma eta garaikurra eman zizkidaten.

Egunkariaren aldeko kontzentrazioa

Igandean, hilak 30, Intxaurrondo-ko Herri Batzordeak antolatuta, Egunkariaren aldeko kontzentrazioa egingo da eguerdian, Zubiaurre pasealeku eta Justo Eleizaran parke artean. Bestalde, 12.00etatik 14.30era arte, mahaia jarriko da eta bertan, harpidetzak egin eta bono laguntzak erosi ahal izango dira. Herri Batzordean lagundu nahi duenak Gotzon Aleman-AEK euskaltegira (943289654) deitu besterik ez du.

«Kamera aurrean urduri jartzen naiz»



Korrika iristear

Korrikaren haritik, hamaika ekimen egingo dira auzoan datozen egunotan: ipuin kontaketa, haur jolasak, afariak... Jarrailan ekitaldion zerrenda duzu.

Martxoak 28, ostirala
21.30 Aritz Ortiz de Urbinaren ipuin kontaketa. Txiki tabernan

Martxoak 29, larunbata
17.00 Haur jolasak Bernart Etxepare plazan

Apirilak 1, asteartea
20.00 Diapositiba emanaldia: "Euskal Herritik Marokara" Gotzon Aleman euskaltegian

Apirilak 4, ostirala
11.00 Korrika Txikia Mirakruz gainetik aterako da. Ondoren, hamaiketako egingo da Bernart Etxepare plazan

Apirilak 5, Larunbata
20.00 Gaztetxoentzako afaria Ipar Haizea elkartearen Zulo Zahar Artzak Ortzeko eta Intxaurrondoko Gastronomia Elkartek prestatutako afari berezia Justo Eleizaran parkean

23.15 Korrikari ongi etorria